



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 26a

28. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### Galderak:

- 11-23/PES-00181. Galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- 11-23/PES-00182. Galdera, Gazteriari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-23/PES-00183. Galdera, Baztango gazteen aterpetxeko pumtrack-pistari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-23/PES-00184. Galdera, Altsasuko gazteen aterpetxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

#### H SAILA:

##### Bestelako testu arau-emaileak:

- 11-24/DFL-00001. 1/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko otsailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen, eta aldatzen duena Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia (5. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/PES-00181. Galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-23/00181). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Uztailaren 11n, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 189/2022 Foru Agindua eman zuen, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea arautzen duena, eta, horren bidez, Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legean jasotako organo hori ezarri zen, harrez geroztik arau bidez garatzeke geratu zena.

Geroago, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari-kudeatzailearen otsailaren 14ko 3/2023 Ebazpen bidez, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeko kideak izendatu ziren, behin parte hartzeko deitutako erakundeek beren ordezkariak aukeratu ondoren.

Kontuan hartuta aldi horretan hasi zela Institutuko zuzendaritzari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatutako ordezkariari eragiten zien hauteskundeetako aldia, egokitzat jo zen saiorik ez deitzea organoa berri-arte, berorren osaeraren erdia baino gehiago baitira.

Behin hauteskundeak izan ondoren, udalak, gobernua eta Federazioa eratu ostean, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari-kudeatzailearen azaroaren 14ko 121E/2023 Ebazpen bidez, eguneratu egin ziren Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordearen kideak, eta egiteke geratu zen 2024. urterako lehenengo saioen deialdia.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-23/PES-00182. Galdera, Gazteriari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Gazteriari buruzko Foru Lege berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-23/00182). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Azterketa egin da eta ondorioak atera dira 2024an ezartzekoa den gazteen iritziak, premiak

eta errealitate problematikoak agenda publikoan sartzeko parte hartzeko prozesuaren inguruan, eta, 2025. urteari begira, gazteriaren lege berria izapidetzen hasiko da.

Aldaketak eginen dira gazteriaren egungo egoeraren eguneraketan eta etorkizuneko aurreikuspenetan oinarrituta. Horrenbestez, hasiera batean aintzat hartu beharko ditugu osasun mentala, online parte hartzea, berdintasuna, orientazio eta identitate sexualen aniztasuna eta kontsulta prozesutik eratorritako beste aldagai batzuk beharrezko aldaketak eta erronkak lideratzeko eta beroriei aurre egiteko ahalduzko xedez, gazteei gizartearen aktiboak diren herritarrak izateko aukera berriak emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-23/PES-00183. Galdera, Baztango gazteen aterpetzeko pumtrack-pistari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Baztango gazteen aterpetzeko pumtrack-pistari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-23/00183). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

2023ko azaroaren 16an abian jarri da Aterpetzeko lehengo igerilekuan pumtrack pista bat jartzeko aldera ingurunea egokitzeko obren lehenengo fasea. Proiektua egokitu da tokiak planteatzen duen konplexutasun teknikora eta onetsitako partidaren aurrekontu zuzkidurara, eta obrak hasteko jadanik erabiltzen ez zen igerilekua eraitsi eta ingurunea egokitu da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-23/PES-00184. Galdera, Altsasuko gazteen aterpetxeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Altsasuko gazteen aterpetxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-23/00184). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusiaren apirilaren 1eko 80/2022 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Gazteriaren Institututik desatxiki zen Otadiako Kristo Santua Gazteen Aterpetxea eta Prestakuntzarako Baliabide Zentroa izandakoa, eta une horretatik aurrera instalazioa Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua izandakoari atxiki zitzaion, zeinak erabilera Espainiako Gurutze gorriari utzi baitzion.

Aterpetxearen bideragarritasunari eta aurreko urteetan ematen zitzaion erabilerari buruzko hausnarketa egin ondoren egin zen desatxikipen hori.

Gazteen aterpetheen helburuak direla uste da, batetik, banaka zein taldean ostatu ematea eskatzen duten gazteei eta gazteen entitateei, nagusiki; eta bestetik, gazteen jarduerak egin ahal izateko laguntza ematea, arreta berezia jarriz

Nafarroako Gazteriaren Institutuak programatzen dituen jarduerari, eta bizikidetzeta eta esperientzia partekatuen trukea ahalbidetzea. Helburu horiek betetzen ziren Nafarroako Gazteriaren Institutuak kudeatzen zituen beste ostatu-instalazio batzuetan, baina ez ziren beti lortzen, ordea, aipatutako instalazioan. Instalazio hori, bere tamaina eta ezaugarriak direla eta, egokiagoa da hertsiki gazteak ez diren beste kolektibo batzuentzat (ikasleak, kirol-, gizarte- eta kultura-entitateak eta abar).

Horri guztiari, instalazioaren kudeaketak suposatzen zuen esfortzu ekonomikoaz gain, jantoki zerbitzurik ez izatea ere gehitu behar zitzaion, sukaldea kudeatzeko lehiaketa hutsik gelditu baitzen. Egoera horretan ez zen bideragarria instalazioa ostatu gisa eskaintzea.

Emandako arrazoiengatik, egokitzat jo zen instalazioaren desatxikipena eskatzeaz gain, plantilla organikoa aldatzea. Aldaketa horri esker, Institutuko zerbitzu zentralen teknikariei dagokienez, gazte politika publikoak garatzeko premia larriari erantzun ahal izan zitzaion, eta zerbitzu orokortako bost lanpostuk eta administrari batek betetzen zituzten sei plaza hutsak amortizatu ziren.

Zerbitzu bat ematea inoiz ez da ulertu behar errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegi hutsetik, baina gure betebeharra da baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatzea, zorrotzasunez, baliabide publikoen aprobetxamendu osoena eta onena helburu, herritar guztien mesedetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**11-24/DFL-00001. 1/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko otsailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen, eta aldatzen duena Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia**

2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak ziurtagiria igorri du, honako legegintzako foru dekretuarena: 1/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko otsailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen, eta aldatzen duena Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 183. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Adieraztea legegintzako foru dekretu honen berri izan duela: 1/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko otsailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen, eta aldatzen duena Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**1/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko otsailaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen, eta aldatzen duena Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia**

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horren barnean, Hitzarmen Ekonomikoaren 31 bis eta 32. artikuluek ezartzen dute ezen, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga (aurrerantzean, EEEBZa) eta balio erantsiaren gaineko zerga (aurrerantzean, BEZa) ordainarazteko, Nafarroak aplikatuko dituela Estatuko lurraldean une oro indarra duten oinarritzko printzipio eta arau substantibo eta formal berberak.

Horren ondorioz, Nafarroak bere tributu-araubidea aldatu behar du zerga horien arau substantibo eta formalei eragiten dien tributu-araubide erkidearen erreformaren bat dagoenean. Helburu horrekin, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 53.1 artikulua ezartzen du Nafarroako

Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eskuordetuta, tributuei buruzko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak ematen ahalko dituela. Aipatu legegintza eskuordetua erabiliz Nafarroako Gobernuak onesten dituen xedapen horiei tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretuaren izena emanen zaie.

Estatuaren esparruan, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehor-tearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dituen abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren bidez, 2024ko lehen sei hilekorako luzatu da oinarritzko elikagaien BEZari % 0ko zerga-tasa aplikatzeko neurria, eta oliba-olioari, hazi-olioei eta janari-pastei % 5ekoa aplikatzekoa, elikagai horien azken prezioa txikiagoa izan dadin laguntzeko. Azpiko inflazioaren bilakaera positiboa izaten ari bada ere, luzapen hori egin da elikagaien eta edari alkoholgabeen urteko inflazio-tasa altua delako.

Halaber, prezioei eusteko eta energiaren esparruan kaltetuen izaten ari direnei laguntzeko, errege lege dekretu horrek energia elektrikoaren hornidura jakin batzuei eta gas naturalari zerga-tasa murriztuak aplikatzeko neurria luzatzen du. Zehazki, elektrizitatearen hornidura fakturaren osagai guztiei BEZaren % 10eko tasa murriztua aplikatuko zaie 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, 2023ko abenduaren 31ra arte aplikatzekoa zen % 5ekoaren orde. Gas naturalaren horniduran ere % 10eko tasa murriztua aplikatuko da 2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarte.

Zerga murriztuen luzapen hori aplikatuko zaie, orobat, pelletei, briketei, egurrari eta biomasatik datozen eta berokuntza sistemetan gas naturala ordeztzeko erabiltzen diren beste gai ekologiko batzuei; 2024ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era arte % 10eko tasa murriztuarekin ordainduko dituzte zergak.

EEEBZaren esparruan, elektrizitatearen prezioa nabarmen beheratu denez azken hilabeteotan, aipatu 8/2023 Errege Lege Dekretuak arindu egiten du ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez hartu zen ohiz kanpoko neurri bat, EEEBZa eten zuena. Hori horrela, 2024ko ekitaldian hauxe izanen da zergaren zerga-oinarria: energia elektrikoa (zentraleko barratan neurria) ekoitzi eta sisteman sartzeagatik zergadunari dagokion zenbateko osoa, instalazio bakoitzeko eta zergaldi horretan, ken lehen hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak, ken bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien laurden bat.

Horrez gain, egun berean, hots, abenduaren 27an, Estatuak 1171/2023 Errege Dekretua onetsi zuen, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua aldatzen duena. Arau horren bidez onetsi ziren aldaketak bat datoz, Foru Komunitatearen esparruan, urriaren 31ko 234/2023 Foru Dekretuak zerga horren erregelamenduan ekarri zituenekin (erregelamendua martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Baina bi salbuespen daude. Alde batetik, lurralde erkidearen Erregelamenduaren 62 ter artikulua idazketa eta Foru Komunitateko Erregelamenduaren 53 ter artikulua, biak ala biak ordainketa zerbitzuen hornitzaileen erregistroen edukari buruzkoak. Eta, bestetik, lurralde erkidearen indarreko 81 bis.2 artikulua idazketa eta foru arauaren 70 bis.2 artikulua, non ordainketa zerbitzuen hornitzaileen erregistroen gaineko aitortpena egiteko epea arautzen baita.

Horregatik guztiagatik, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu hau eman behar da, BEZari eta EEEBZari dagokienez, Estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berberak aplikatu daitezten Foru Komunitatean.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2024ko otsailaren 14an egindako bilkuran hartuta erabakiarekin bat,

#### DEKRETATZEN DUT:

**Lehenengo artikulua.** Tributu neurri batzuen indarraldia luzatzea.

**Bat.** Elikagaien entrega, inportazio eta eskurapen jakin batzuetan, Europar Batasunaren barrukoetan, aldi baterako aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa, bai eta baliokidetasun-errekarguaren ondorioetarako ere.

Ondorioak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarra 2024ko ekainaren 30era bitarte izateko:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren % 5eko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

- a) Oliba-olioa eta hazi-olioak.
- b) Janari-pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa % 0,62koa izanen da.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren % 0ko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arruntaren ore izoztua eta ogi arrunt izoztua ere, soil-soilik ogi arrunta egiteko erabiltzen direnak.

b) Ogia egiteko irinak.

c) Edozein animaliak emandako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Fruta, barazkiak, ortuariak, lekariak, tuberkuluak eta laboreak, Elikadura Kodearen eta hori garatzeko emaniko xedapenen arabera produktu naturalen izaera dutenak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa % Okoa izanen da.

3. Zerga-tasaren murrizketaren onura osoa kontsumitzaileak jasoko du eta, beraz, murrizketaren zenbatekoa ezin izanen da erabili, ez osorik, ez partez, enpresen mozkin-marjina handitzeko, produktuen ekoizpen, banaketa edo kontsumo katean prezioak igota, deusetan galarazi gabe ukitutako sektoreek, erantzukizun soziala dela eta, konpromiso gehigarriak beren gain hartzea eta publizitatzea.

Neurri honen eraginkortasuna egiaztatuko da prezioen bilakaeraren jarraipena egiteko sistema batekin, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egin beharreko jarduketaz gain betiere.

Bi. Produktu energetikoen entrega, inportazio eta eskurapen jakin batzuetan, Europar Batasunaren barrukoetan, aldi baterako aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa.

1. Ondorioak izanik 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarra, berriz, 2024ko abenduaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergan % 10eko zerga-tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruan honakoen alde egiten diren energia elektrikoaren entrega, inportazio eta eskurapenei:

– Elektrizitatez hornitzeko kontratuen titularrak, potentzia kontratatua (potentzia-termino finkoa) 10 kW-ekoa edo txikiagoa denean, edozein dela ere horniduraren tentsio maila eta kontratazio mota, baldin eta eguneroko merkatuko batez besteko prezio aritmetikoa, fakturazio epeko azken egunaren aurreko azken hilabete naturalari dagokiona, 45 eurotik gorakoa izan bada MWh-ko.

– Elektrizitatez hornitzeko kontratuen titularrak, elektrizitatearen bono soziala jasotzen badute eta kaltebera larriaren edo gizarte-bazterketa arris-

kuan dagoen kaltebera larriaren izaera aitortua badute, Kontsumitzaile kalteberaren figura, bono soziala eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk arautzen dituen urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat.

2. Ondorioak izanik 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarra, berriz, 2024ko martxoaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergan % 10eko zerga-tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruan egiten diren gas naturalaren entrega, inportazio eta eskurapenei.

3. Ondorioak izanik 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarra, berriz, 2024ko ekainaren 30era arte, balio erantsiaren gaineko zergan % 10eko zerga-tasa aplikatuko zaie biomasatik datozen briketen eta pelleten eta egurren entrega, inportazio eta eskurapenei, Europar Batasunaren barruan egiten direnei.

Hiru. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuak zehaztea 2024ko ekitaldian.

1. 2024ko ekitaldirako, hauxe izanen da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria: energia elektriko (zentraleko barratan neurtua) ekoizti eta sisteman sartzegatik zergadunari dagokion zenbateko osoa, instalazio bakoitzeko eta zergaldi horretan, ken lehen hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak, ken bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien laurden bat.

Lehen hiruhilekoko ordainketa zatikatua kalkulatzeko, kontuan hartuko da ekoiztutako eta sistema elektrikorako sartutako energia elektrikoaren balioaren erdia (energia hori zentraleko barratan neurtua), zergaldiaren hasieratik urteko lehenbiziko hiru hilabeteak amaitu arte, eta aplikatuko da martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen lehenbiziko artikulua 8. apartatuan ezarritako zerga-tasa (martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen bidez energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen dira).

Bigarren hiruhilekoko ordainketa zatikatua kalkulatzeko, kontuan hartuko da ekoiztutako eta sistema elektrikorako sartutako energia elektrikoaren balioa (energia hori zentraleko barratan neurtua), zergaldiaren hasieratik urteko lehenbiziko sei hilabeteak amaitu arte, eta horri kenduko zaio, lehenbizi, lehen hiruhileko naturalean sistemara sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien erdia, eta, ondoren, bigarren hiruhileko naturalean siste-

mara sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien laurden bat; orobat, martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen lehenbiziko artikulua 8. apartatuan ezarritako zerga-tasa aplikatuko da (martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen bidez energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen dira), eta dagoeneko 2024ko ekitaldiaren kontura egin diren ordainketa zatikatuen zenbatekoak kenduko dira.

Hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, kontuan hartuko da ekoiztako eta sistema elektrikora sartutako energia elektrikoaren balioa (energia hori zentralerik barratan neurtua), zergaldiaren hasieratik urteko bederatzi edo hamabi hilabetera bitarte (hurrenez hurren), eta horri kenduko zaio, lehenbizi, lehen hiruhileko naturalean sistemara sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien erdia, eta, ondoren, bigarren hiruhileko naturalean sistemara sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien laurden bat; orobat, martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen lehenbiziko artikulua 8. apartatuan ezarritako zerga-tasa aplikatuko da (martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen bidez energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen dira), eta dagoeneko 2024ko ekitaldiaren kontura egin diren ordainketa zatikatuen zenbatekoak kenduko dira.

**Bigarren artikulua.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren aldaketa.

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, honela idatzita geldituko dira martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren manu hauek:

Bat. 53 ter artikulua, 1. apartatuko a) eta f) letrak aldatzen dira, eta 4. apartatua eransten.

“a) BIC kodea edo entitatearen beste edozein kode identifikatzaile, ordainketa zerbitzuen hornitzailea zalantzarik gabe identifikatzen duena, bai eta haren izena edo sozietate izena eta onuradunaren izenean gauzatzen duen eginkizuna ere;”

“f) Onuradunaren helbidea edo helbideak, ordainketa zerbitzuen hornitzaileen erregistroetan agertzen diren bezala, halakorik izanez gero; onuradunaren helbide elektronikoak edo web-orrialdeak izanez gero, horien informazioa ere emanen da;”

“4. Nafarroako Foru Ogasunak bermatuko du emandako informazioa tratatzen dela datuen babeserako Europako ereduaren legezko oinarriekin bat, oinarrizko eskubideak errespetatuz eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aitortutako printzipioak zainduz, bereziki datu pertsonalak babesteko eskubidearena (datuen babeserako Europako erdua honako hauetan dago bilduta: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentaraua; eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa).”

Bj. 70 bis artikulua, 2. apartatua.

“2. Aitorpen hori dagokion hiruhileko naturalaren ondorengo hilabetean aurkeztu beharko da.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta bertan ezarritako ondorioak izanen ditu.

Iruñean, 2024ko otsailaren 14an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez